

# Adinekoen eta pentsiodunen aldarrikapena Euskal Herriko eskubide sozialen alde

Euskal Herriko langile, adineko, pentsiodun eta erretiratuek urteak egin ditugu lanean, ez zailtasunik gabe, gure bizitza eta gure familiena aurrera ateratzeko. Horrenbeste urtetako lan eta dedikazioaren ostean, erakundeetan egun nagusi diren eskuineko politikek, murrizketak eta bazterketa eskaintzen dizkigute ordainean. Politika horien erantzuleak ez dira gure klase sozial berekoak, eta horregatik beraien lagunak zaintzen dituzte: bankari, enpresa handi eta gizarteko sektore pribilegiatuak.

Industria eta zerbitzuetako langileak, etxeko andreak, baserritarrak, autonomo txikiak... izan gara eta egun erretiro eta pentsio prekarioak jasotzen ditugu. Goi mailako eliteek, haien zerbitzura dauden politikoek lagunduta, gizartearen gehiengoari ezarri dioten diktadura ekonomikopean bizitzera kondenatuta gaude; gainera, demokrazia batean bizi garela esanez !!! *Bota dezagun demokrazia hau zeri askara!*

Gu, adineko gizon eta emakume langileak, oraindik pertsona aktiboak gara; urteetan gure ekarpena egin dugu, eta aurrerantzean ere gure lana eta esperientzia eskaintzen dugu, gainontzeko langileriarekin batera, gizatasunik gabeko sistema hau errotik aldatzeko

Guretzako eta egungo langileriarentzako apurrak geratzen dira: pentsio txikiak, botikak berrordaindu, gero eta murriztagoak diren gizarte zerbitzuak... Azken finean, ez dugula ezertarako balio sinistarazi nahi digute; gure duintasuna zapaltzen dute; adin txikikoak bagina bezala tratatzen gaituzte; euren neurri paternalista eta hipokritekin iraindu egiten gaituzte; eta burla egiten dute pentsatuz ez garela gai bidegabekeria honi aurre egiteko.

Sinetsita gaude guk, gainontzeko langileek bezala, nahikoa botere, esperientzia eta jakituria dugula gure gizartean gauzek, guztientzat, behar bezala funtziona dezaten. Zuzenean edo zeharka, aberastasun sortzen dugu; gure prestakuntza, trebetasun eta praktikarekin, gizarteak ondo funtziona dezan lagundu dugu, eta laguntzen jarraituko dugu. Gure ekarpen antolaturik gabe, jada eratuta dauden gizarteak, suntsitu egingo lirarteke.

Borrokarako prest gaudela berresten dugu; Euskal Herriko langileria borrokalariaren parte sentitzen gara, eta gure jendearekin bat egiten dugu berariazko gure eskubideen eta eskubide sozial orokorren alde borrokatzeko. Goi mailako eliteek, haien zerbitzura dauden politikoek lagunduta, neurrigabekeria ezartzen diguten inposizioa ez dugu onartuko. Ahal dugun neurrian, bidegabekeria sistematiko hau geratzen saiatuko gara. Horretarako, eta herri langileriaaren parte garen aldetik, bat egiten dugu Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren oinarri eta edukiekin

Erabaki hau hartzearekin bat, erretirora edo aurretiko erretirora iritsi diren langile guztiei dei egiten diegu bat egin dezaten gure borrokaekin. Pentsatzen dugu, gizarteko sektore bezala, zor zaizkigun eskubideak eskuratzeko aukera badugula. Irtenbidea gure esku dago! Hori egiteko botere eta adimen kolektiboa dugu. Batu ditzagun gure indarrak!

**EUSKAL HERRIKO ESKUBIDE SOZIALEN ALDEKO PENTSIODUNAK**

*2015-02-25 Bilboko Asanblada / Topagunean hedatua*





## Aldaketa sozialaren garaia da

Inposatzen dizkiguten erabaki politikoek herritarron pobretzea eta prekariedade egoera iraunkortzea ekarri dute, aberastasunaren banaketa bidegabe eta desberdintasun ekonomiko eta sozialak areagotuz. Sistema kapitalista heteropatriarkarra da krisiaren arrazoi nagusia, eta horren ondorio ematen den korrupzioa, azpiegitura erraldoi eta zentzugabeak egiteko nahia, CAN desagertaraztea eta Kutxabank-en pribatizazioa...

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren parte garen eragile sozial eta sindikalen ustez, aktibazio soziala eta mobilizazioa dira dagokiguna eskuratzeko ditugun tresnak. Hiru ideia nagusitan oinarritu nahi dugu gure jarduna:

- Bizitzaren jasangarritasuna erdigunean kokatzen duen jendarte eredia defendatzea.
- Gai ekonomiko nahiz sozialak zein lan eremuko erabakiak hartzeko erabateko ahalmena aldarrikatzea.
- Gure helburuak lortzeko, mobilizazioa beharrezkoa dela berrestea.

### Badugu alternatiba!

Guztion artean bestelako eredu sozial, ekonomiko eta politikoa eraiki dezakegu. Guk geuk baldintza berriak sortzeko gaitasuna dugu eta norabide horretan lehen urratsa emateko asmoz PROGRAMA SOZIALA adostu dugu. Hego Euskal Herriko Instituzio guztiei zuzendu eta **politika publikoak errotik aldatzea exijitzen dugu:**

### AURREKONTU ETA POLITIKA FISKAL ETA SOZIALAK ALDATU

- 1- Espainiako gobernuak inposatutako aurrekontu mugapen eta murrizketarik ez onartu eta Hego Euskal Herriko Instituzioen murrizketak atzera bota.
- 2- Ondasunaren banaketa bidezkoaren bidean politika fiskal eta progresiboa sustatu.
- 3- Propioak izango ditugun osasun, hezkuntza eta arreta sozialerako kalitatezko zerbitzu publiko eta unibertsalen garapena.
- 4- Prestazio sozialak handitu.
- 5- Eskubide sozialak babesa legez aitortu: etxebizitza izateko eskubidea, menpekotasun egoera guztiak babestu edo maila guztietan hezkuntza publikorako eskubidearen bermea beste.
- 6- Gure eredu sozio-produktiborako aitzindari izango den sektore publiko indartsua bultzatu.

### KALITATEZKO ENPLEGUA SORTZEKO POLITIKA GARATU

7- Kalitatezko enplegu defendatu:

- Soldaten hobekuntza nabarmena, bereziki baxuenean.
- EEERik ez burutzea ordezkaritza sindikalaren gehiengoaren akordioak gabe.
- Asteko lanaldia 35 ordura murriztu.
- Lan eta negoziazio kolektiboaren erreformak atzera bota.
- Gizarte Segurantzaren erregimen berezia duten enplegua eta lan eskubide guztiak bermatzea.
- Aparteko lanorduak ezabatu.
- Erretiro adina aurreratu.
- Europako Karta Sozialaren parekoa izango den Lanbidearteko Gutxieneko Soldata ezarri.

### JENDARTEAREN PARTE HARTZEA BERMATU

- 8- Politika guztien diseinu, erabaki eta kontrolerako parte hartze demokratikoa ahalbidetzeko instituzioen berregituraketa egin.
- 9- Zorraren auditoria erraztu eta garatu, zilegiztat jotzen ez den zatia ez ordaintzeko konpromiso hartu.


### BIZITZAREN JASANGARRITASUNA ETA ONGIZATEARI BIDE EMAN

- 10- Pertsonak, Herriak eta natura multinazionalen ginetik kokatu. TTIP-ari ez.
- 11- Zaintza lanak sozialki aitortu eta kolektiboki banatu.
- 12- Baldintza laboral eta sozialak berdintasuna bermatu: genero, adin, sexu joera, aniztasun funtzional edota jatorriarekiko diskriminazioak ezabatu.

### DEMOKRAZIA ETA ESKUBIDE KULTURALEN DEFENTSA ETA KONPROMISOA BERRESTU

- 13- Askatasunen murrizketa eta mugimendu sozial eta sindikalaren aurkako errepresioa errefusatu.
- 14- Emakumeok pairatzen dugun zapalkuntza eta indarkeria ekiditeko, eta parekidetasuna bermatzeko neurri eta politikak ezarri.
- 15- Euskaraz bizitzeko eskubidea eta aniztasun kulturala babestu eta bermatu.
- 16- Ahalmen normatibo osoa eskuratzeko burujabetza prozesua sustatu.

Denon indar eta aktibazioa beharrezkoa izango da egoera aldatu nahi badugu. Kalera irten gaitezen eta dugun indarrean sinetsi dezagun.  
**Mobilizazioarekin lortuko dugu!**



manifestazioak  
**MARTXOAK 14 de MARZO**

**BILBO: 17:00 Sdo. Corazón**  
**IRUÑEA: 17:30 Parque Antoniutti**